



Azalpen txostena, Kultura, Lankidetzaz Gazteria eta Kirol Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusien ingurukoa eta haiek prestatzean erabilitako irizpideak jasotzen dituen.

Aurrekontuak Covid-19k sortutako egoerara egokitzeko beharra alde batera utzita, aldaketa esanguratsuenak zerrendatuko ditugu, zuzendaritzen arabera.

Kulturako Zuzendaritzaren aurrekontuan desberdintasun nabarmenenak dira:

Koldo Mitxelena erreformatzeko proiektuaren birformulazioa eta, ondorioz, inbertsio horren berrantolaketa, guztizko kostuari dagokionez, lehen proposatutakoa baino askoz ere txikiagoa izango baita, nahiz eta legealdi honetan obra amaitzeko ahaleginari eutsi zaion. Baliabide materialak eta giza baliabideak Okendoko bulegoetara eramatea ere aurreikusi da.

Pandemiak kultura-sektorean dituen ondorioei aurre egiteko, Piztu Kultura Plana garatzen jarraitzea, ondarea kontserbatzeari, zaharberitzeari eta zabaltzeari dagokionez. Ondare eta Artxibo zerbitzuetako eta Gordailua eta Museoetako partidetan jasotako aurrekontuak, 2020an oso ondo funtzionatu dutenak. 300.000 €guztira.

Kultura-sareari eusteko dirulaguntzen deialdiak mantentzea, Covid-19k sortutako larrialdi-egoerak haren jardura normaltasunez garatzea ahalbidetzen ez duen bitartean. 150.000 €guztira

Kultura-sorkuntzaren laguntza eta sustapen lerro berri bat ezartzea, lurraldearen sortzaileei aukera emango diena proposamen berriak sortzeko. Orain arte egon diren diru-laguntzek horiek zabaldu eta erakustearen gastua ordaintzeko balio izan baitute. Aurrekontuan 110.000 € jaso dira.

Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.

Dejando a un lado la necesidad de adaptar los presupuestos a la situación generada por el Covid-19, pasamos a enumerar por direcciones las variaciones más significativas.

En el presupuesto de la Dirección de Cultura, las diferencias más notables son:

La reformulación del proyecto de reforma del Koldo Mitxelena y la consiguiente reperiodificación de esta inversión que va a resultar en cuanto a su coste total notablemente inferior a la anteriormente propuesta, aunque se sigue con el empeño de finalizar la obra en la presente legislatura. También se ha contemplado el traslado de los medios materiales y humanos a las oficinas de Okendo.

De cara a seguir haciendo frente a los efectos de la pandemia sobre el sector cultural, seguir desarrollando el Plan Piztu Kultura, en la parte correspondiente a la conservación, restauración y difusión del Patrimonio. Presupuestos recogidos en distintas partidas de los servicios de Patrimonio y Archivos y Gordailua y Museos que han funcionado muy bien el año 2020. Un total de 300.000€.

Persistir en las convocatorias de subvenciones que sirvan para mantener el tejido cultural, en tanto la situación de emergencia generada por el Covid-19 no permita el desarrollo normalizado de su actividad. Un total de 150.000 €

Implantar una nueva línea de ayuda y fomento de la creación cultural, que permita a las personas creadoras del territorio generar nuevas propuestas. Las subvenciones existentes hasta la fecha sirven para sufragar el gasto por su difusión y exhibición. Recogidos 110.000€ en el presupuesto.



KMKn garatutako eta garatzeko dauden kultura-ekimenak digitalizatzeko eta hedatzeko ahaleginean sakontzea. Konfinamendu-hilabeteek eta normaltasun berriak kultura zabaltzeko eta partekatzeko bide berriak bilatzera behartzen gaituzte, eta, horrela, 2020an KMK garatu dugu. KMK honen bidez eraikinean garatuko den programazioarekin elikatzen jarraitu nahi dugu, baina baita ere historian zehar eraikinean egindako funts guztiekin ere. Proiektuak 100.000 €-ko zenbatekoa izango du.

Foru-artxiboetako funtsak digitalizatzen jarraitzea. Tolosan eta Oñatin gordetako dokumentazioa sarearen bidez eskaintzeak funts horietarako sarbidea erraztu eta biderkatuko du. Notario-protokoloetan inbertitzen jarraitu nahi dugu, protokolo horien ondoriozko azterlanek eta ikerketek Gipuzkoako azken 500 urteetako gizartearen ezagutzan sakontzeko balio dezaten.

Debako zubiaren konponketa obrari hasiera emango zaio, obra 2022 urtean bukatzea aurreikusi da.

Nazioarteko lankidetzako Zuzendaritzaren aurrekontuetan bi gai hauek dira azpimarragarriak:

- Gazte kooperatzaileentzako beken deialdia desagertzen da gaur egungo egoera epidemiologikoaren ondorioz.
- Lankidetzako mahaia baliabideekin hornitzeko igoera.

Gazteriako Zuzendaritzaren honako gaiak azpimarratu behar dira nagusiki:

ATERPETXETAKO ATALEAN

Aldaketa Segurako aterpearen atxikipena aldatzearen eta aurrekontuan islatzearen ondorio da. Aterpetxe hori eta bertako langileak Gizarte Politiketarako Departamenduak kudeatuko ditu, Lagundu gabeko Adingabe Atzerritarrentzako harrera-programa abian jartzeko (MENAK).

Profundizar en el esfuerzo por la digitalización y difusión de las iniciativas culturales desarrolladas y por desarrollar en el KMK. Los meses de confinamiento y la nueva normalidad obligan a buscar nuevos canales para difundir y compartir la Cultura y así en 2020 hemos desarrollado KMK, que a lo largo del año que viene queremos seguir alimentando con la programación que se desarrollará en el centro, pero también con todos los fondos recogidos a lo largo de su historia. El proyecto alcanzará un montante de 100.000 €

Continuar con la digitalización de los fondos de los archivos forales. Ofrecer la documentación conservada en Tolosa y Oñati a través de la red facilitará y multiplicará el acceso a estos fondos. Queremos continuar invirtiendo en los protocolos notariales para que los estudios y las investigaciones que de ellos se deriven, sirvan para profundizar en el conocimiento de la sociedad guipuzcoana de los últimos 500 años.

Se iniciará la obra de reparación del puente de Deba, cuya finalización se ha previsto el año 2022.

En el caso del Presupuesto de la Dirección General de Cooperación Internacional, resultan significativas las siguientes dos cuestiones:

- Desaparición de la línea de ayudas a jóvenes cooperantes debido a la situación epidemiológica actual.
- El incremento para dotar de recursos a la Mesa de Cooperación.

En la Dirección General de Juventud, hay que resaltar principalmente estas cuestiones:

SECCIÓN DE ALBERGUES

La modificación se deriva del cambio de adscripción del albergue de Segura y su reflejo en el presupuesto. Este Albergue y su personal pasan a ser gestionados por el Departamento de Políticas Sociales para la puesta en marcha del programa de acogimiento para Menores Extranjeros No Acompañados (MENAs).



GAZTERIAKO ATALEAN

Aldaketa nagusia formakuntza programa berrirako 70.000 €-ko partida bat sortzean datza. Udalekuak eta Gazte Oporraldiak eta

Gipuzkoako Gazte Tour programa – gazteentzako kulturakoa – mantentzearen aldeko apustua egiten dugu.

Diru-laguntzen zenbatekoei eustearen aldeko apustua egiten dugu, horiek ematea arautzen duten oinarriak egungo egoerara egokituz. Denak bere horretan mantentzen dira, "Auzolaneko gazteak" deiturikoa izan ezik, harrera ona izan baitu 2020an, ondorioz gehitu egingo da bere dotazioa.

2021ean zehar, Kultura Digitala eta Erasmus+ programak egiteari utziko diogu, gaur egungo egoeran ez baititugu gomendagarriak ikusten.

Azkenik Kiroletako Zuzendaritzaren aurrekontuari dagokionez:

- Zuzendaritzak kiroleko berdintasunaren arloan egiten duen ekintzari bultzada eman zaio.
- Handitu egin dira kirol-orientazioko zerbitzuen sarea zabaltzea eta desgaitasuna dutenentzako arreta-sarea zabaltzea sustatzeko laguntzak.
- Inbertsioak aurreikusi dira Txuri Urdin eta Kirol Etxean, beharrezkoak diren obrak egiteko eta ekipamendua erosteko. Horien zenbatekoa 570.000 € da.

SECCIÓN DE JUVENTUD

La modificación principal es la creación de una partida para el nuevo programa de formación que ascenderá a 70.000€.

Apostamos por mantener los Udalekuak y Gazte Oporraldiak y el programa Gipuzkoan Gazte Tour, de cultura para jóvenes.

Hacemos una apuesta por el mantenimiento de las cuantías de las subvenciones, adaptando las bases que regulan su otorgamiento a la coyuntura actual. Se mantienen todas salvo la de "Jóvenes en Auzolan" que aumenta ya que ha tenido una buena acogida durante el año 2020.

Durante el año 2021 dejaremos de realizar los programas de Kultura Digitala y Erasmus+ ya que no los vemos recomendables en la coyuntura actual.

Por último, en lo que respecta al Presupuesto de la Dirección General de Deportes:

- Se ha dado un impulso a la acción de la dirección en materia de igualdad en el deporte.
- Se han incrementado las ayudas para promover la extensión de la red de Servicios de Orientación Deportiva y la extensión de la red de atención a la discapacidad.
- Se han previsto inversiones en Txuri Urdin y Kirol Etxea para la realización de obras y compra de equipamiento necesario cuyo importe asciende a 570.000€.




09 Departamentua KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA/

Departamento 09 DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACION, JUVENTUD Y DEPORTES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5	INBERTSIO ERREALAK 6	KAPITAL TRANSFER. 7	FINANTZA AKTIBOAK 8	FINANTZA PASIBOAK 9	AURREKONTUA GUZTIRA
Programas	GASTOS DE PERSONAL	GTOS.CTES. BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	CONTINGENC. IMPREVISTOS	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	TOTAL PRESUPUESTO
01. Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Zerbitzu Or Servicios Generales de Cultura, Cooperación, Juven	1.232,89	1.979,60				1.692,50				4.904,99
10. Ondare Historiko Artistikoa eta Artxihoak/ Patrimonio Histórico-Artístico y Archivos	1.547,22	1.604,90		1.025,32		4.193,07	1.294,20			9.664,71
11. Gordailua eta Museoak/ Gordailua y Museos	429,92	1.740,54		1.547,55		270,50	40,00			4.028,51
12. Liburutegia, kulturaren sustapena eta hedapena/ Biblioteca, promoción y difusión cultural	1.284,97	3.853,95		7.503,96		1.122,10	362,75			14.127,73
20. Nazioarteko Lankidetz/ Cooperación Internacional	245,66	248,24		4.229,95						4.723,85
30. Haur, nerabe eta gazteen sustapena/ Promoción de infancia, adolescencia y juventud	3.009,51	2.584,53		696,25		62,00				6.352,28
40. Kirolaren sustapena/ Fomento del deporte	1.103,11	1.644,98		10.634,92		885,50	1.514,89			15.783,40
Departamentua Guztira Total Departamento	8.853,28	13.656,74		25.637,95		8.225,67	3.211,84			59.585,47



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL